

Elgoibar 1349, zenb.
XXXI. urtea - 2024/11/29



Elgoibarko historian barrena, ibilian

Sarai Sagasta

GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa oparoagoa izateko.

Zaindu.

Pertsone guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitez.



GIPUZKOA
Foru Aldundia

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

2.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan

TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Napoka iria musika cd-ak



Ibai-Ondo erretegiaren menu bonoa



Sagar zukuak




Aterkiak



Sormenerako materiala



Jolasak



Goxoki zorroak



Edalontzi sorta



Teniseko pilotak



"Txirristaka" liburua



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenen ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloe Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio Inprimategia: Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

 youtube.com/@Elgoibarrennet

"b"
barren

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Galdetu prezioak eta gusiture erantzungo dirugu.

TEMPUR

TEMPUR BURKOA, ORIGINALA

Burko ergonomiko honek gorputzaren berezko inguruei jarraitzen die, buruak, lepoak eta sorbaldak behar duten euskarria eskainiz.

Zerbikalak bizkarrezurrekin lerrotatuta geratzen dira, ahoz gora edo alde batera atsedean hartzen dugunean.

Zorroa kendu eta garbigailuan, 60°tan garbitzeko egokia da.

Zorroaren osaera: %98 poliester eta %2 elastane.

LAGUNAK
colchoneria textil hegar
San Roke kalea, 20- Elgoibar

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG LFR7184N2V
GARBIGAILUA

499 €

- **Steam Refresh:** zure jantziak lurrunarekin freskatzen dira eta zimurkak murrizten dira.
- **UniversalDose kaxoia:** PODS kapsulak %60 bizkorrago aktibatzen ditu.
- **Precise Wash:** garbiketa-denbora eta ur eta energia kontsumoa % 40raino murrizten du, garbiketa-zikloa optimizatuz.
- **Care danborraren patroia**ren diseinua leunagoa da zure jantziekin.
- Lurruna erabiltzen du urarekin garbitu beharrean, dena prest 25 minutuan eta %96 ur gutxiago gastatuta.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Azaroaren 25a, Elgoibar BHIko ikasleen ikuspegitik

Azaroaren 25a genero indarkeria desagerrarazteko eguna da, eta ikastetxe publiko bezala, ezinbestekoa dugu azaltzea zein den egun horren inguruko gure ikuspegia eta konpromisoa.

Gure gizartean alor askotan aurrera egin dugu, nahiz eta beste askotan oraindik lan handia egon egiteko. Indarkeria matxista da horren adibide nagusia. Izan ere, urteetan horren inguruko kontzientziazioak gora egin badu ere, agerikoa da hobekuntza eta urrats nabariak falta direla egiteko. Aurten, berriz ere, gure ikastetxeko ikasle, langile zein irakasleengandik jaso ditugu eraso matxisten testigantzak, eta hauek argi eta garbi erakusten dute indarkeria matxistak gure inguruan dugun jendeari biziki kalte egiten diola egunero.

Idatzi honen bidez, Elgoibar BHIko Hezkidetzataldetik adierazi nahi dugu ikastetxe honetan ikasleok konpromiso osoa dugula indarkeria matxistaren aurkako borrokan, bai eta ikastetxea leku seguruagoa eta babesleagoa izaten laguntzeko ahaleginean ere. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatuta ditugu egun horren harira ikastetxean, arazoari ikusgarritasuna emateko eta ikastetxe mailan kontzientzia eta elkarlana sustatzeko. Irmoki uste dugu nahitaezkoa dela gure gizarteko arazo honi behar duen garrantzia ematea eta honen aurkako borrokan batera egitea.

Elgoibar BHI-ko ikasleak

Alternatiben faltan, zorian murgilduz...

Aste batzuk pasatu dira Morkaiko kalean (Urazandi) 25 aparkaleku kentzeko erabakia hartu zutenetik. Erabaki horren berri ez emateaz gain, herrian dugun arazo larri bat are gehiago handitu dute. Ibilbide horretako espaloia estua omen da eta horregatik kendu ei dituzte aparkalekuak. Gaur sorturiko arazoa da ala orain ohartu gara honetaz, zubiko obrak direla eta?

Herritar guztiok ados gaude gure herrian dugun arazo handientariko bat aparkaleku libre bat topatzea dela. Gai honetan erabaki politikoek zeresan handia dute, alternatibak plazaratu beharrean irtenbideak herritarren esku uzten dituztelako. Gehiengoak -garaje pribatua ez dugunok-, zoritxarrez, zortearen baitan murgiltzeari ekiten diogu. Aparkalekua topatzeko garaian, zenbat aldiz izan duzue buruhauste eta frustrazio sentsazio hori?

Lanetik egunero etxera berandu iristen naizenez, aparkaleku libre bat topatzea, zaila baino gehiago, ia ezinezkoa egiten zait. Orain, gauez iristen garen pertsonon azalean jartzea eskatzen dizuet irakurleoi; pentsatu zer amorrutuz sortzen duen etxera iristeko gogoz zaudenean 20-30 minutuz aparkaleku bat libratu zain gelditu beharrak. Aurreko batean, bi egunez jarraian, 25 minutuz egon nintzen kotxe barruan geldi-geldi, zain, noiz leku bat libratuko, eta azkenean beste norabaitera jo behar izan nuen aparkatzera. Eroski pareko aparkalekuetan aparkatu behar izan nuen autoa.

Mesedez, udaleko arduradunei eskatuko nieke herritarrekin hitz egiteko, egoera aztertzeko eta alternatibak planteatzeko, erabaki bat hartu aurretik. Bestela herritarrok derrigortuta gaude irtenbideak bilatzera. Urazandi auzoko kasuan adibidez, aparkaleku berriak asmatuz eta espaloietan kotxeak utziz, beti ere oinezkoiei ahalik eta oztopo gutxien sortuta.

Jada hamabost bat aparkaleku asmatu ditugu, Udalak ez dizkigulako irtenbideak proposatu. Hori bai, isunak jarrita zigortzea erraza da.

Eta aparkalekuez ari garela, zer diozue politikariek Sigma fabrikako goiko aparkalekuan ere TAO-OTA jarri nahi izateaz? Ordu batzutarako autoa lagatzeko beharra baldin badugu, gero eta oztopo handiagoak ditugu. Enpatia pixka bat, erabakiak hartu baino lehen! Ulertu herritar guztion egoera ekonomikoa ez dela bera eta denok ezin dugula garaje pribatu bat izan.

J.C.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Aparkalekuak errespetatu egin behar

dira: "King-Kong zubitik Maalarako bidea zabaldu dute oinezkoentzat, baina autoek bidea oztopatzen dute. Gidariei eskatu nahi diegu mesedez ondo aparkatzeko, eta oinezkoei bidea libre lagatzeko".



Bernardo Ezenarro kalean autoa kontrako norabidean aparkatzeagatik isuna jarri didate:

"Herri honetan aparkaleku libre bat topatzeko daukagun arazoa ikusita, ez zait bidezkoa iruditzen ekintza honegatik isunak jartzea. Badakit marra jarraia zapaltzen dela autoa alderantziz aparkatzeko, baina inor arriskuan jartzen ez bada, iruditzen zait ekintza hori barkatzeko modukoa dela". Udaltzaingotik esan dutenez, informazio kanpaina egin zuten lehenengo eta orain isunak jartzen hasi dira. "Kexa asko jasotzen genituen, eta isunak jartzea erabaki dugu. Denok dakigu ezin dela marra jarraia gainditu, arriskutsua da kontrako norabidean sartzea, eta horrela aparkatuta, iritertekoan ere kontrako zentzuan gidatu behar



da. Gaizki aparkatzea bezala hartzen ari gara eta isun arinak jartzen ditugu. Marra jarraia gaunditzeagatik isunak askoz garestiagoak dira".



Jolas parkeak erdizka daude

azkenaldian: "Maalako parkean ziburua falta da, eta Lekuederren armiarma sarea prezintatuta dago. Ez dauzkagu jolastokiak soberan herrian, beraz, daudenak behintzat erabilgarri izan beharko genituzke".



Ikastola ingurua seguruagoa egitea eta haurren autonomia lehenestea aukeratu dute mendaroarren

Espazio publikoen erabilera eta herritarren beharrianak aztertzeko *Kalea DenONAK* prozesu parte-hartzailea hasi zuen maiatzean Mendaroko Udalak Projekta Urbes enpresako arkitektoek gidatuta, eta horren baitan beste saio parte-hartzaile bat egin zuten joan zen egunean udaletxean, aurrez egindako bileretan jasotako proposamen nagusiak aurkezteko eta herritarren ekarpenak biltzeko.

Mendaron nola bizi nahiko luketen pentsatzen jarri ditu Udalak herritarrek, herriko bost gune nagusiren bueltan: Herriko Enparantza eta Martzela Osoro parke ingurua; ikastolako ingurua eta Mendarozabal auzoa; Garagartza eta San Agustin kulturgune buelta; tren geltokia eta autobus geltoki inguruak; eta Azpilgoeta. Bost gune horietarako egindako proposamenen inguruan herritarren adostasun-maila zenbatekoa zen jakiteko, inkesta zabaldu zuen Udalak duela hiru aste. Projekta Urbesetik jakinarazi dute 82 herritarrek erantzun zutela inkesta; 50 emakumek eta 31 gizonek, eta inkesta bete zutenetik bostek desgaitasunen bat dutela aitortu zutela eta 54 lagunek beste norbait zutela zaintzapean. Inkestako emaitzei erreparatuz gero, ikusten da herritarrek ikastola inguruan eta Mendarozabalen eragiteari ematen diotela lehentasuna (75ek

lehen puntutzat aukeratu zuten). Inguru horretan haurren autonomia lehenetsi beharko litzatekeela uste dute, segurtasuna, trafikoarekiko babesa eta irisgarritasuna bermatuta. Era berean, uste dute Mendarozabal auzoa eta Trinitateko parkea atsedenerako eta jolaserako egokitu beharko luketela. Herriko Enparantza eta Martzela Osoro ere begiz jota dituzte herritarrek (68k). Herritarrek egindako proposamenetatik Projekta Urbesekoek egin duten proposamen-zirriborroan Herriko Enparantza eta bere ingurunea topaketarako, zainketetarako eta atsedenerako egokitzea jasotzen da, horretarako oinezkoen joan-etorriak lehenetsita eta trafikoa kenduta.

Garagartza auzorako eta San Agustin kulturgune bueltarako egindako proposamena izan da boto gehien jaso duen hirugarrena. Hala ere, proposamen guztiek jaso dute herritarren babesa (batez beste lau puntukoa bostetik). Proiektu handiak dira denak, diru asko eskatzen dutenak bere osoan gauzatzeko, baina Projekta Urbesetik zehaztu dute poliki-poliki horrako pausoak ematen hastea dela orain lana. Helburua zehaztuta, hori lortzeko irizpideak markatzea alegia, etorriko diren proiektuetan txertatu ahal izateko. Mendaroko Udalak bere egin du konpromiso hori.

Jostailuak eta eskolako materiala bidali dute Mendarotik Valentziara

Kamioi bete jostailu eta eskolako material bidali dute Mendarotik Valentziako uholdeetan kaltetutako hiru herritara: Aljemesira, Catarrojara eta Massanassara. Mendaroko haurreskolak sustatu du ekimena. 0-6 urtera bitartekoentzako materiala eskatu zuten bereziki, baina beste adin batzuetako haurrentzako materiala ere bildu dute. Galle-tiak ek utzitako lokalean bildu dute material guztia, eta zapatu goizean eraman zuen Valentziara Ertz galdaragintza enpresako Ladis Perezek. Algemesiko haurreskola batean utzi zituen 0-3 urte bitartekoentzako jolasak eta materiala, eta Catarrojako eta Massanassako beste bi ikastetxetan 3 eta 6 urtera bitartekoentzakoak. Adin horretatik gorakoentzat bildutako materiala gizarte laguntzan ari den abade baten esku utzi zuten. Mendaron garraioa lotuta zutela baliatuta, Zaldibarko haurreskolakoek ere Mendarora ekarri zuten material guztia barikurako, kamioi berean bidaltzeko Valentziara.



Domekan, abenduaren 1ean, zabalduko dute Sallobente-Ermuarango jolasgune berria

H ezkuntza Mahaian garatutako proposamen zabalago baten barruan, jolasgune berria sortu dute Sallobente-Ermuaranbiden, eta domekan, abenduaren 1ean, zabalduko dute, 11:00etatik 14:00etara egingo dute jaiarekin. Elgoibarko Udaletik inauguraziora autoz ez joateko eskatu dute eta elkarrekin oinez joateko ordua zehaztu dute: 10:00etan, Maalan.

Egunotan, zume bizia landatzen ibili dira jolasgune berrian. Garaion Natur Artea Elkarteak osatu du zume biziko jolasgunea, baina proiektuan parte hartu dute Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako bosgarren mailako ikasleek. Lankidetzan asteak eman ondoren, bi ikasteetxetako ikasleek azaroaren 15ean aurkeztu zituzten beren proiektuak Udal Ludotekan egin zuten jardunaldi batean, eta bienekin bat egin zuten gero, diseinu bakar batera ekarrita. Hain justu ere diseinu hori da Garaion Natur Artea Elkarteak gauzatu dutena. Bestalde, Atxutxiamaikak, Kukulaisi elkartearekin elkarlanean, beste proiektu bat



garatu du eremu bererako, lehenengoaren osagarri izan nahi duena. Hala, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko espazio bat sortu dute inguru berean. Elgoibarren adin ezberdinetako herritarrekin gauzatutako parte-hartze prozesu baten emaitza izan da proiektua eta gunea bera herritar guztientzako "irisgarria eta abegitsua" izateko diseinatu dute.

Talo tailerra egingo dute bihar, hileko azken zapatuko ferian

Azaroko azken zapatuko feria antolatu dute biharko Elgoibarko Udalak eta Debemenek. Goizean goizetik Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta Artaldetaldekoak Aita Agirren egongo

dira euren lanak saltzen. Morkaikok txosna zabalduko du 11:00ak aldera, eta 11:30ean talo tailerra egingo dute Atxutxiamaikakoek etxeko txikienekin. Eguerditik aurrera ganadu erakusketa ere egongo da.

28 kutxa elikagai eta 2.500 euro batu dituzte Elgoibarko elikagai bilketan



Gipuzkoako Elikagaien Bankuak deitutako janari bilketa kanpainarekin bat egin zuen Elgoibarrek joan zen asteburuan, eta guztira 28 janari kutxa eta 2.500 euro bildu zituzten. Santa Ana kaleko Eroskin 6 elikagai-kutxa eta 1.028,00 euro bildu zituzten bonuetan; Maalako Eroskin 8 elikagai-kutxa eta 2.506,65 euro eta BM-n 14 kutxa eta 1.704,00 euro. Bergarako Elikagaien Bankuak, Elgoibarko Gurutze Gorriak eta Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkiete bilketan parte hartu duten guztiei.

Etxegabetasunari End plataforma aurkeztu dute

Etxegabetasunari End aurkeztu zuten martitzenean Eibarren, etxegabetasunaren arazoa amaitzeko bokazioarekin sortu duten herri-plataforma. Etxegabeez Bertol Brechtek 1931n idatzi eta 1989an Mikel Laboak *Gaberako aterpea* abestian musikatu zituen bertsoak gogora ekarriz hasi zuten aurkezpena, salatzeko etxegabetasuna konpondu gabe dagoen arazoa dela gure gizartean. Eta hain justu ere, arazo horri aurre egiteko batu dituzte indarrak plataforman justizia sozialarekin eta elkartasunarekin konprometitutako askotariko lagunek, etxegabe bakar batek ere ez dezan kalean lo egin beharrik izan. Helburu horrekin bat datozen guztiei plataformara batzeko deia ere egin diete. Eibarren sortu dute plataforma, baina eskualde guztira zabaltzeko asmoz.

Plataformaren izenean ageri den END horrek esanahi bikoitza duela azaldu zuten aurkezpenean. Batetik, aurtengo udaberrian ixtea erabaki zuten Eibarko Neguko Dispositiboaren siglek osatzen duten berba da, hain zuzen ere arrazoi horretxek bultzatu dituelako plataforma sortzera, eta, bestetik, ingelesez, amaiera esan nahi du ENDek, eta ondo islatzen du plataformaren helburu nagusia. Nolanahi ere, argi utzi dute beren helburua ez dela aterpetxea negurako zabaltzea eskatzea, baizik eta urte osoan zabalduta mantentzea. Lau helburu zehaztu dituzte: gizarte zerbitzuen zorroan aipatzen den aterpetxe zerbitzua zabaltzea; Eibarren kale egoeran dauden pertsonentzat zerbitzua



urte osorako zabaltzea; etxegabeei oinarrizko mantenua, higiena eta lotarako segurtasuna falta ez izatea; eta gizarte zerbitzuetan kale egoeran dauden pertsonak artatzea, errolda baldintza izan gabe”.

Datuak ere eman zituzten, azken hiru neguetan Eibarren martxan egon den dispositiboan ematen zuten zerbitzuaren garrantzia ikustarazteko: Lehenengo urtean, Eibarko Udalak kudeatu zuen zerbitzua eta 2021eko abenduaren 1etik 2022ko apirilaren 15era eman zuten zerbitzua. Tarte horretan, 101 pertsona hartu zituzten bertan, batez beste 13 pertsona egunero, eta egonaldi ertain/luzeko hiru plaza zabalduta zituzten. Bigarren urtean, 2022ko urriaren 15etik apirilaren 15era eman zuten zerbitzua, Arrats elkarteak kudeatu zuen eta 149 pertsona atenditu zituzten, batez beste 17 pertsona egunero. Egonaldi ertain/luzeko sei plaza izan zituzten. Eta joan zen neguan, Arrats elkarteak kudeatuta, 188 pertsona atenditu zituzten eta egonaldi ertain/luzeko hamaika plaza izan zituzten aterpetxean.

Konpondu dute Garagartzako eliz-parrokiko atea eta han ospatuko dute abenduaren 8ko meza

Abuztutik ez dute mezarik eman Garagartzako eliz-parrokian, ateko zarraila hondatua egon delako eta, eginahalak egin arren, martitzenera arte ez zutelako lortu ordezeko pieza inguratzerik. Parrokiatik jakinarazi dute abenduaren 8an, Kontzezio Egunean, emango dutela han hurrengo meza, 12:30ean. Aste honetako meza Azpilgoetako eliz-parrokian ospatuko dute, iragarria zuten moduan.



21,5 milioiko aurrekontua onartu du Elgoibarko udalbatzaren osoko bilkurak 2025erako

Elgoibarko udalbatzaren osoko bilkurak 21.486.483,51 milioiko aurrekontua onartu du 2025erako, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk kontra bozkatu du, norabide eta anbiziorik gabeko aurrekontuak direla argudiatuta.

Datorren urteko aurrekontua 2024koa baino %10,7 txikiagoa izango da, eta horrela banatu dute: Antolaketa: 6.076.677,50 euro (% 28,28); Herritarrak: 7.059.755,83 euro (% 32,86) eta Lurraldea: 8.350.050,68 euro (% 38,86).

Aurrekontua sailka aztertuta, Gizarte Ongizate



arloak %18ko igoera izan du, eta Kultura eta Euskara Sailek %2 egin dute gora. Gazteriak, aldiz, %5eko jaitsiera izan du.

Egondo enpresako langileek mobilizazioak hasi dituzte



LAB sindikatuak jakitera eman duenez, Egondo enpresako beharginen lan ituna berritzeko negoziazioek ez dute emaitzarik eman eta "blokeo egoera agerian lagatzeko" hasi dituzte mobilizazioak. Lan ituna 2022ko abenduaren 31n iraungi zela zehaztu dute, eta ituna berritzeko negoziazioak hasi zituztela enpresako arduradunek eta Egondoko Langile Batzordeak;

LAB eta CCOO sindikatuetakoko ordezkariak osatuta. Beharginen euren desadostasuna publiko egitea erabaki dute eta hiru elkarretaratze egin zituzten joan zen astean, lantegiaren atarian. "Jarrera immobilistatan itxita" egotea leporatzen diote enpresari, eta ohartarazi diote berriro "negoziaketa erreal" batean murgildu ezean, mobilizazio gehiago egingo dituztela.

Nagusilan izan da Gure Balioak sarietako irabazleetako bat

Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak, eskualdeko Udalekin lankidetzan, Gure Balioak sariak banatzen ditu, norbanako eta erakundeei aitortza egiteko. Hainbat ataletan banatzen dituzte sariak, eta Gizarte Ekimena atalean Nagusilan saritu dute aurten. Nagusilanek nahi gabeko bakardadearen arazoari aurre egiteko proiektuak lantzen ditu. Orbea enpresak emandako 2.000 euroko saria jaso zuen Joserra Ezenarro elkarteko lehendakariak.



SARAI SAGASTA

Gidari turistikoa

✍️ Ainhoa Andonegi / 📍 Asier Orbea

Historia ikasketak egin zituen Sarai Sagastak (Elgoibar, 2000) eta gaur egun Donostian egiten du lan, gidari turistiko moduan. Bidaiatzea gustuko du, Erromara eginiko bidaia batean piztu zitzaion gidari turistiko izateko nahia, eta ustekabean jaso zuen Donostiako lanpostu baten berri. Gidari turistikoa behar zuten, eta lanposturako proba egitea erabaki zuen. Berehala konbentzitu zuen enpresako nagusia. Berritsu fama izan du umetatik, eta bere hitz jariora ogibide bilakatu du. Bihar, Elgoibarren egingo du turra Atxutxiamaikaren barruan sortu berri den ZZ NagiaKentzen Taldeak antolatuta. Gazteen artean eskalduntasuna sustatzea du helburu taldeak. Turra alai eta ludikoa prestatu du, euskaraz. Arratsaldean, Elgoibar Koloretan mahai-jokoaren lehiaketa egingo dute, eta iluntzean sorpresaren bat ere izango da, erromerian. Turrean adi egoteko gomendioa egin du.



Gidari turistikoa zara Donostian. Nola iritsi zara lan horretara?

Historia ikasketak egin nituen Gasteizen, lau urtez. Gradua amaitu nuen, baina gradu amaierako lana ez nuen egin. Atzeratzea erabaki nuen, ez nekielako zein gai landu. Egoera horretan nengoela lagun batek esan zidan Donostiako enpresa bat gidari turistiko bila ari zela, eta lanpostura aurkeztea erabaki nuen. Elkarrizketatu ninduten eta ondoren bost minutuko proba bat egin behar izan nuen kalean. Bi minutuan konbentzitu nuen enpresako nagusia, eta kontratatu egin ninduen. Bi urte daramatzat lanean. Bisita gidatuak eskaintzen ditugu, *Freetour* estiloan. Horrelakoetan bisita amaieran ordaintzen dute bezeroek, beraiek egoki ikusten duten kantitatea. Nire kasuan soldata finko bat daukat, baina aldatu egin daiteke bezero kopuruaren eta ordaintzen dutenaren arabera.

Nolakoa da zure lanbidea?

Niri asko gustatzen zait. Umetatik berritsu deitu izan didate, eta orain lanbidetzat hitz egitea izatea itzela da. Gogoratzen naiz gainera

“Elgoibarri buruzko informazio orokorra emango dut bihar, modu alai eta dibertigarrian”

irakasle batek behin ikastolan esan zidala hitz egiteak ez zuela jaten ematen, eta begira, hitz egiteak ematen dit jaten gaur egun. Zapatutik asteazkenera bitartean egiten dut lan, eta egunero izaten dut jendea. Asteburuetan izaten ditugu bisita gehienak, baina astean zehar ere ibiltzen dira turistak Donostian. Espainiakoak dira turista gehienak, eta urte osoan zehar bidaiatzen dute. Hondarribian ere egiten dut lan tarteka, baina askoz jende gutxiago mugitzen da. Donostia modan dago. Donostiarrak apur bat

nazkatuta daude turista taldeak kalean ikusteaz, bereziki udan. Gure enpresa da zerbitzua urte osoan zehar eskaintzen duen bakarrenetarikoa eta herritarrek ezagutzen gaituzte. Zorionez ondo hartzen gaituzte. Bisitaren geldiuene batean Donostiako martxa erakusten diet, abestu egiten diet eta herritarrek laguntzen didate batzuetan. Ni oso pozik nago lan honetan.

Biharko Turra Historikoa antolatu duzue. Zein da ekimenaren helburua?

Gazteei Elgoibarko berri ematea da helburua, modu alai eta dibertigarrian. Nire ikasketetan konturatu naiz historia nork eta nola kontatzen digun, asko aldatzen dela. Hizlariaren arabera izan daiteke historia oso interesgarria edo guztiz aspergarria, eta nik bisita gidatu honekin lortu nahi dut jendeak ondo pasatzea, kontatzen dudana entzuleei gustatzea, eta zerbait ikasten badute, askoz hobeto. Gustatuko litzaidake Elgoibarri buruzko datu esanguratsuren batzuekin geratzea, azken batean jendeak ez badaki herriari buruzko ezer, herriaren historia galdu egiten delako. Elgoibarri buruzko informazio orokorra emango dut, ur sakonegietan sartu gabe. Ez daukat turra emateko asmorik; modu ludikoan prestatu dut bisita. Jende askok gehiago ezagutzen du kanpoko historia, herrikoa baino. Bidaiatzen dugunean, zalantza handirik gabe egiten ditugu bisita gidatuak, baina gure herriari buruz ez dakigu ezer. Nik uste dut jendeak gustura entzungo duela bere herriari buruzko informazioa. Ez dakit zenbat jende etorriko den, baina espero dut etxeakoak baino gehiago etortzea! Askok geratu naute azken egunetan kalean eta etorriko direla esan didate.

Nola planteatu duzu bisita? Zer geldiuene egingo dituzu ibilaldian?

Kalegoen Plazan hasiko gara, eta han egingo dut bisitaren sarrera, Elgoibarren bihotza plaza delako, nahiz eta plaza horren aurretik Elgoibar identifikatzeko lekua Olaso izan. Gaur egun hilerria dago, eta bisita han hastea ez nuen ikusten, baina haren berri ere emango diet. Aita Agirre plazan ere geratuko gara. Hor San Frantzisko komentua zegoen, eta hark izan

"Behin irakasle batek esan zidan hitz egiteak ez zuela jaten ematen, eta begira, hitz egiteak ematen dit jaten gaur egun"

zuen garrantzia azalduko dut. Nafarroa plazan Kultur Etxearen berri emango diet. Elgoibarko harresia hor amaitzen zen, eta leku garrantzitsua da herrian. King-Kong inguruan ere geratuko gara, eta hor egon zen dorretxe bati buruz hitz egingo dut. Gune horretan, bestalde, Deba ibaiatz ere jardungo naiz, ibaiak herrian berebiziko garrantzia izan duelako. Elgoibarren garapena ezin daiteke ulertu, Deba ibaiarena ulertu gabe. Elgoibarren loraldi sozial, ekonomiko eta industrialak Deba ibaiak ekarri du. Gradu amaierako lana Deba ibaiari buruz egin nuen, eta tribunalak esan zidan oso gai polita eta interesgarria izan zela. Zoritxarrak ere ekarri dizkigu ibaiak, baina garapena berari esker etorri da. Maalan bukatuko dugu ibilaldia, eta han Altzolari buruz ere hitz egingo dut. Altzola Madril Txikia bezala ezagutzen zen bere garaian, eta oso garrantzitsua izan zen ingurune honetan. Turista asko etortzen ziren ur mineralak erakarrita. Esaten dute ume batzuek deskubritu zutela Altzolako ur minerala, han bainua hartzen ari zirela. Gero bainuetxea egin zuten eta jende garrantzitsu asko etortzen zen bertara. Napoleonen ondorengoren bat ere Altzolan egondakoa dela diote. Altzolari buruzko sekreturen bat ere kontatuko dut bihar.



Donostian egindako bisita turistiko bateko argazkia.

Horrez gain, Sigma eta San Pedro fabrikak ere aipatuko ditut eta baita baserriak ere.

Non ikasi duzu Elgoibarri buruz dakizuna?

Pello Arrieta eta Javier Elorzaren liburuak erabili ditut, eta baita Koldo Lizarralderenak ere. Gure Bide elkarteko bazkide gara familian, eta Lizarralde ere hango bazkide zen. Sarri egiten genuen topo eta gauza pila bat galdetzen nizkion. Behin, nire amamak esan zion Historia ikasi nahi nuela eta sekulako poza hartu zuen, neska batek Historia ikasi nahi zuela entzutean. Gradu amaierako lana Elgoibarko ondare industrialari buruz egin dut, eta horretarako liburu asko kontsultatu behar izan ditut. *Ahotsak.eus* atariko bideoak ere ikusi ditut. Elgoibarko kontuez gain, Euskal Herriko historiari buruz ere irakurri dut, eta gero, logika erabilita, loturak egin ditut. Askotan entzun izan dut Historiak ez daukala logikarik, baina niri iruditzen zait baietz. Ni ez naiz Wikipedia, baina logika aplikatuta eta gauzei pare bat buelta emanda, nire hipotesiak lantzen ditut askotan. Saiatzen naiz baita ere historia eguneroko kontuekin konparatzen, bisitarienezako erakargarriago egiteko.

Elgoibarrek badauka turistikoki baliorik?

Badauka ondare artistikoa, baina asko galduta dago. Kalegoen plaza ikusgarria da, frontoia Euskadiko zaharrena da, Altxolatarren dorretxea ere oso polita da... Turismo erlijiosoa gustuko duenarentzat bai izan daiteke interesgarria Elgoibar. Kanposantuaren historia oso polita da, eta Debako elizarekin batera, gotikoaren erakusgarri politena da hemen inguruan. Baserri auzoak ere politak ditu.

Nondik datorkizu Historiarako zaletasuna?

Historialari batean pentsatzen dugunean, gizonetako etortzen zaigu burura normalean. Ez da oso ohikoa gazteen artean, eta emakumezkoetan are gutxiago, baina niri umetatik gustatu izan zait. Gurasoek eta aiton-amonek kontatzen didate albistegietan ematen zutenean ez dakit non zer gertatu zela, mapan begiratzen nuela, leku hura non zegoen. Dena galdetzen nuen, interes handia neukan gertakarien arrazoiak ezagutzeko. Umetan esaten nuen abeslari edo kazetari izan nahi nuela, baina DBHn argi ikusi nuen historia gustatzen zitzaidala. Egiptoko Historia beti gustatu izan zait eta iaz hara bidaiatzeko aukera izan

*"Umetan abeslaria edo kazetaria
izan nahi nuela esaten nuen,
baina DBHn argi ikusi nuen
Historia gustatzen zitzaidala"*

nuen. Historia ikasteak Egipto beste modu batean ikusteko aukera eman dit. Ez naiz damutzen Historia ikasi izanaz. Jende askok esaten zidan ikasketa horrek ez zuela etorkizunik, irakasle izateko aukera bakarrik ematen zuela, eta uneren batean egon nintzen aldatzekotan ere. Eskerrak aurrera egin nuen!

Unibertsitatean nengoela lagun batzuekin Erromara joan nintzen, eta Freetour bat egin genuen. Taldeko gogaikarriena izango nintzen gidariarentzat, galdera pila bat egin nizkiolako. Han piztu zitzaidan gidari izateko nahia eta berari galdetu nion zer egin behar zen lanbide horretan sartzeko. Italiara joatea ere pentsatu nuen lanera, baina Donostian ere oso gustura nago. Italian lan egiteko italiara ere ikasi beharko nuke, eta Donostian gaztelaniaz egiten dut lan, batez ere. Azkenaldian ingelesez ere hasi naiz, baina turista gehienak Espainiatik etortzen zaizkigu. Euskaraz lan egitea nahiko nuke, eta bihar daukat estreinako bisita bat euskaraz eskaintzeko aukera. Ilusio handia egiten dit turra euskaraz emateak. ZZ Taldeak azken batean hori du helburu: euskaraz gehiago hitz egitea. Gazteok gure artean euskaraz naturaltasunez hitz egitea nahi dugu, eta euskara hizkuntza akademikoa baino gehiago dela erakutsi nahi dugu. Euskara kalean ere erabili behar dugu, bestela galdu egingo da. Niretzako biharkoak osagai guztiak dauzka emaitza ona izateko: historia, gazteak eta euskara.

Biharko eguna ez da, baina, turra historikoarekin bukatuko. Gehiago ere antolatu duzue.

Bai, arratsaldean Elgoibar Koloretan mahai jokoaren txapelketa egongo da, eta nik parte hartzera animatzen ditut gazteak, oso ondo pasatuko dutelako eta Elgoibarri buruz ikasiko dutelako. Eta gainera, sari onak daude. Iluntzean erromeria ere egongo da, eta sorpresaren bat ere bai erromerian zehar. Ezin dut besterik aurreratu; esan dezakedan bakarra da bisita gidatuan zehar adi-adi gotea komeni dela.

ALAIN AFFLELOU

Óptico y Audiólogo

617 583 036

San Bartolome kalea 10, behea.



ALAIN AFFLELOUK, optika munduan Amerkatuko korporazio liderrena denak, optika zabaldu du Elgoibarren. Aro berri bat hasten du orain arte Federópticos Ikus optika izan den lokala hartuta. Alain Afflelou frantziar etxe ezaguna marka dinamikoa, demokratikoa eta eskuragarria da eta ikusmen- eta entzumen-osasuneko produktu eta zerbitzu ugari eskaintzeko asmoz heldu da Elgoibarrera. Maria Jose Espin optikari eta audiologoak eta Ana Sorazuk, Ikusen 20 urte baino gehiagoko esperientzia izan duen saltzaileak, osatuko dute taldea eta haiek izango dira bezeroak artatuko dituztenak. Elgoibarren egindako ibilbide luzean Federópticos Ikusek bereizgarri izan dituen ezaugarri bereberrei utsiko diete: arreta pertsonalizatua, konfiantzazkoa eta profesionala eskainiko dute.

► Zein da Alain Affleloutik egingo duzuen eskaintza?

Alain Afflelou ez da optika huts bat; betaurrekoak eta armazoiak edo audiologiako zerbitzuak eskaintzen dituen establezimendu bat baino askoz gehiago da; espiritu propioa duen denda bat da, bezeroen beharrak ondo ezagutzen dituena. Tokiko merkataritzarekin konprometituta dago, eta ikusmen- eta entzumen-osasuna demokratizatzea ditu helburu, denok ondo ikusteko eta entzuteko dugun eskubidea zaintzeko asmoz.

► *Tchin Tchin* promozioak ospetsu egin zuen Affelou marka, bere eskaintza bereziagatik. Azaldu diezagukezue?

Gaur egun, bi betaurreko pare edo gehiago

edukitzea ezinbestekoa da, baina, batez ere, erabilgarria da! *Tchin Tchin*-ekin betaurrekoak denontzako eskuragarri egiteko helburua bete dugu. Euro bat gehiago ordainduta, bigarren betaurreko pare eskuratu dezakezu. Eta, abenduaren 3tik aurrera *Tchin Tchin Eguberriak* kanpainaren barruan bi betaurreko pare gehiago eskuratu ahal izango dituzu, euro bat gehiago ordainduta. Eta hirugarren pare hori zuretzat edo oparitzeko izan daiteke. Bigarren betaurreko pare bat izateak babesten gaitu edozein ustekaberen aurrean: hausturak, lapurretak, galtzeak... Gainera, *Tchin Tchin* sustapenak aukera ematen dizu bigarren betaurreko pare beste modelo batekoa izateko. Modu horretan estiloa ere aldatu ahal izango duzu.

► Zer esan diezagukezue *Magic* bilduma eskusiboaz?

MAGIC monturen bilduma betaurreko enabilerira iraultzeko iritsi da, berrikuntza eta betaurreko bat baino gehiago izateko aukera uztartuz. Keinu bakar batekin, eguzkitako betaurrekoak edo betaurreko polarizatuak bihur ditzakezu, edo pantailatarako argi urdineko iragazkia duten betaurrekoak, edo gaez gidatzeko betaurrekoak, edo, are gehiago, 3Dko filmak ikustekoak! *Magic Clip*-ekin, armazoiari modu erraz eta azkarrean iman txiki batekin lotzen zaizkion klip magnetiko trukagarriekin, nahi adina betaurreko izango dituzu, eta estiloz edo ikusmen-aukeraz aldatu ahal izango duzu "klip" bakar batean. Bilduma zabala gizonezko, emakumezko zein umeentzat: www.afflelou.es/coleccion-magic-by-afflelou/

BLACK FRIDAY

%80ra

ARTEKO
DESKONTUA
MARKA GUZTIETAKO
ARMAZOIETAN*

ETA

Tchin Tchin

**ZURE BIGARREN
BETAURREKO PAREA 1€
GEHIAGOREN TRUKE***

*kusi balintzak Alain Afflelou Espainian eta Andorra dituen denda guztietan edo afflelou.es webgunean.

ANDONI SALAMERO

Olerkari-esataria

✍️ Ainara Argoitia

Gabriel Arestiren poemen berrinterpretazioa egingo dute Andoni Salamero, Andoni Egañak eta Aitor Furundarenak domekan, Mendaroko San Agustin kulturgunean taularatuko duten 'Arestian, egun...!' obraren bidez. 18:00etan hasiko da emanaldia eta Andoni Salamero (Zumarraga, 1966) egin digu obraren aurrerapena.



■ ■ Saiatuko gara Aresti berrinterpretatzen eta kontuan hartu ez zaizkionei balioa ematen ■ ■

Olerkaria zara. Zerk bestek lotzen zaitu Arestirekin?

Biziarekiko maitasunetik eta nire pentsamenduetatik, sentimenduetatik, portaeretatik eta egiteetatik izaten asmatzen diharduen pertsona naiz ni. Pentsatzen dut gizaki guztiok dauzkagula ahalmen edo gaitasun batzuk, eta horiek landu behar ditugula. Hala egin zuen Arestik. Ni neu olerkiak eta kantautorearen irudiak erakarri izan naute, eta niretzat hitzek izugarritzko balioa izan dute beti. Horrek eman dit bidea olerkari gisa jarduteko eta esparru ezberdinetan esatari gisa aritzeko. Orain, preseski, hoguei emanaldi ezberdin aurkezten ari naiz herriz herri eta agur-omenaldiak ere prestatzen ditut.

Arestik alderdi asko izan zituen, nahiz eta bakarra nagusitu den askotan. Zer nabarmendu duzue? Zein da obra honen abiapuntua?

Jose Luis Padron olerkariarekin Galiziara egin nuen bidaia batean erosi nuen nik Arestiren liburua, eta ondoren, Oñatik lagun min bik Bilbora gonbidatu ninduten Aresti ibili zen lekuak ezagutzera. *Bilbon dabil Gabriel Aresti* liburua den idazlea den Karmelo Landarekin eta Gabriel Aresti elkarteko kide den Xabier Monasteriorekin egin genuen ibilialdi hura eta ikaragarria izan zen. Han hasi nintzen ni ikuskizun hau prestatzen. Gerra garaian jaio zen Aresti, 10 urterekin ikasi zuen euskara, gizon azkarra eta jakin-min handikoa izan zen, sufritu zuen asko, zentzugabeko gauza

asko esan izan zirelako hari buruz, besteak beste espagnolista zela, baina bereziki sortzaile eta eragile handia izan zen Aresti, eta izan zen hori dena garai zail hartan. Eta obra honen bidez, horixe nahi dugu azpimarratu: batetik, euskara beti ardatzean jarri izan zuen eragile handia izan zela eta elkar-hartzeak eta zubi-lanak egin zituela beste sortzaile askorekin, eta bestetik, Arestik utzitako arrastoa oso handia izan dela. Balioan jarri nahi dugu, baita ere, bakoitzak bere gaitasunei jarraiki egiten duena, Arestik egin zuen horixe. Aresti buru-belarri aritu zen Euskaltzaindian Txilardegi eta abarrekin, baina ez zuen apustu hori egin bazituelako emaztea eta hiru alaba, eta lehenetsi zituelako haiek. Arestik egin zuen moduan, sentitu, bizi eta maite dugun horren alde egiten badugu denok, askoz eramangarriagoa izango zaigu gure izatea.

Esan daiteke, hein handi batean, ukatu zitzaion aintzatespen hori bilatzen duzuela Arestirentzat?

Bai. Niri iruditzen zait badaudela zenbait idazle, Iparraldean [Pierre Topet] Etxahun bat adibidez, madarikatu ukitu hori dutenak; Arestik ere bazuen hori. Aresti ahobizarrik gabe jardun zen bere garaian; ez zen isildu, eta egiak esan behar zirenean, esan egin zituen. Esango nuke batzuetan beste modu batean jokatu izan balu gaur beste aintzatespen bat izango zuela.

Gu gure gaitasunez baliatuta saiatuko gara Aresti berrinterpretatzen eta kontuan hartu ez

zaizkionei balioa ematen. Emanaldian, Aresti aita eta senarraz gain, Aresti olerkaria, sortzailea eta eragilea ere aurkeztuko dugu. Olerkari bilbotarraren eskutik, Bilbo hiria, garai hartako arazoak -klase sozialen bereizketa, langile mugimendua...-, eta garai hartako pertsona ospetsuak ere ezagutuko ditugu, tartean Jorge Oteiza, Agustin Ibarrola eta Blas de Otero.

Jakin badakigu analisirako lehengai agorrezina dela Arestiren obra, baina eskatuko bagenizu obratik edo bere izatetik zerbait nabarmentzeko non jarriko zenuke azpimarra?

Maite zuenaren alde borrokatzeko zuen gaitasunean eta ausardian, eta erakutsi zuen nortasunean. Nik uste dut Arestik aitortzen ziola bere buruari talentua, baina askotan ez zuela eman bere alorrean nabarmentzeko pauso hori emazteagatik eta hiru alabengatik, baina hala ere, borrokatu zela beti maite zuen horren eta justua uste zuen horren alde. Jakingo nuke gustura non ote legokeen gaur aukera eman izan baliote bere garaian soldatapean maite zuen horren alde ekiteko! Bere barru-barrua sutzen eta gartzen zuen gaitasuna garatuta ematen jakin izan zuen, genialtasuneraino iritsita, eta gainera, eremu ezberdinetan: kantuan, antzerkian, komunikazioan, itzulpengintzan, euskara batuaren defentsan... Zer ederra litzatekeen gai bagina denok ere gure gaitasunak antzematen, eta horietan Arestik izan zuen erabakimenez, eginahalez eta ausardiaz ekiteko.

Ez dugu dena kontatuko, baina zer aurreratu dezakezu emanaldiaren formatoaz?

Asmoa Arestiren 41 urteak taularatzea izanik,



lau ataletan/garaitan banatu dugu emanaldia: 1936. urtea, gerra hasi zen urtea; 1955. urtea, Arestiren gaztaroa, Meli Esteban emaztea eta gainerakoak ezagutu zituen garaia; 1975. urtea, hil zen urtea, eta 2025etik aurrerakoa, etorkizuna. Aitor Furundarena eta Andoni Egaña artista handiak izango ditut ondoan oholtzan eta saiaturako gara nor bere ahaletatik Aresti berrinterpretatzen. Olerkia, musika, bertso jarriak, hausnarketa eta beste elementu batzuk izango ditu emanaldiak.

Azken kontu bat. Baduzu zuk zeuk harremana Mendarorekin. Zer izango da zuretzat domekakoa?

Bai. Amama Joxepa Inaxi Urbieta nuen nik Mendarokoa, Usabbita baserrikoa. Itziarko Makasti baserriko Jose Mari Alberdirekin ezkondu zen amama, Txerturi baserrira (Itziar). Hiru seme-alaba izan zituzten han, eta hirurak - osaba Batista eta Agustin eta Agustina osaba-izeba bizkiak-, hartuta etorri ziren Zumarragara, Leturiondo baserrira. Zumarragan beste bost seme-alaba izan zituzten: Joxe, Patxi, Gloria, Bitoriano eta Mari Karmen. Ama-pontekoa nuen nik amama, eta Mendarora itzultzea opari bat da niretzat, batetik amamaren arrastoa ezagutzea delako horra bueltatzea, eta bestetik, amamak sortzen ikusi zuen herriari apalki zerbait eskaintzeko bidea delako. Opari handia da niretzat Andoni Egaña eta Aitor Furundarenaren mailako bi artista handirekin Arestiren obra San Agustin kulturgunean plazaratzea. Era berean badut lagun zoragarri bat Mendaron, Aitor Etxeberria, sortzaile handia. Elkarrekin egin izan dugu lan eta baditugu esku artean elkarrekin egin nahiko genituzkeen beste lan batzuk ere, zalantzarik gabe egingo ditugunak ■



Andoni Egaña bertsolaria eta Aitor Furundarena musikaria, etzi oholtzara igoko diren beste bi artistak.

BABESTUTAKO EDUKIA DEBABARRENEKO ENERGIA BULEGOA

Argiaren faktura aztergai

ETXEKO FAKTURA ELEKTRIKOA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Azken urteetan, etxeko faktura elektrikoak aldaketak jasan ditu eta gaur egun dokumentu konplexu eta ulergaitza bihurtu da herritarrentzat.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundearen arabera, kontsumitzaileen %11k soilik ulertzen du. Izan ere, fakturan hainbat kontzeptu aipatzen dira, baina hauek ulertzeko oinarriko ezagutza tekniko batzuk izan behar dira. Ondorengo artikuluan, etxeko faktura elektrikoak ulertzeko gakoak izango ditugu hizpide.

Kontratutako potentzia eta energia kontsumoa

Kontratutako potentziak aldi berean martxan jarri ditzakezun aparatu elektriko kantitatea mugatzen du; KiloWatt (kW) da bere unitatea. Kontsumitutako energiak, berriz, erabilitako energia kantitatea zehazten du eta KiloWatt ordu (kWh) da bere unitatea. Ordu-tegi-tarifak edo erabilera-denboraren tarifak eguneko orduaren arabera aldatzen dira. Momenturik garestiena goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 20:00etara bitartekoa izan ohi da. Edonola ere, badira kontratuak eguneko ordu guztietarako tarifa bera eskaintzen dutenak.

Merkatu erregulatua eta librea
Elektrizitatearen sektorean bi merkatu mota daude, erregulatua



eta librea, eta kontsumitzaileak kontratatzerako momentuan, bi merkatu horien artean aukera dezake. Argiaren merkatu erregulatua Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa eskaintzen du (PVPC). Tarifa honek merkatu elektrikoak araututako eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gainbegiratutako prezioak eskaintzen ditu. Merkatu librea, berriz, argia, gasa eta mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa ugari daude, eta beraiek markatzen dituzte prezioak.

**KONTSUMITZAILEEN
ERAKUNDEAREN
ARABERA, %11K SOILIK
ULERTZEN DUTE
ARGIAREN FAKTURA**

Faktura murrizteko neurriak
Faktura murriztu nahi baduzu, ondorengo ekintza hauek har ditzakezu kontuan: Etxetresna elektriko eraginkorrak erabiltzea (A etiketa); deskonektatu kargagailuak eta behar ez dituzun ekipoa; aprobetxatu argi naturala; berokuntzaren eta aire girotuaren erabilera erregulatzea; potentzia optimizatzea.

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia · Diputación Foral

 **Energia
bulegoa birtuala**

energia.debegesa.es
agenda2030@debegesa.es
943 82 01 10.

DEBABARRENEKO ENERGIA BULEGOA BABESTUTAKO EDUKIA

Fakturaren atalak

Kontratuaren eta titularraren datuak

Fakturazio datuak

Kostuen laburpena eta guztira

KOSTUEN LABURPENA

- Kontsumitutako energia
- Potentzia
- Zergak
- Zerbitzuak
- BEZ

Potentzia
Energia terminoa

Bono soziala

Zerga
Zerbitzuak
BEZ

Horniduraren bestelako informazioa



KONTRATUAREN ETA TITULARRAREN DATUAK

- Titularra
- Horniduraren helbidea
- Kontratututako potentzia
- Kontratu zenbakia
- Kontratuaren amalera data

FAKTURAZIO DATUAK

- Faktura zenbakia
- Fakturazio periodoa
- Fakturatutako egunak
- Emisio data
- Kobratze data
- Kontu korrontea



BONO SOCIALA

Bonu sozial elektrikoa baliabide gutxiko familiei laguntzeko neurria da, energia merkeago saltzen baitzake. Gaur egun, energiaren sektoreko enpresa guztiek (banatzaileek, ekoizleek eta merkaturatzaileek) ordaindu behar dute; beraz, kontzeptu hori fakturretan kontzeptu gisa sartu da edo tarifetan txertatu da.

ZERBITZUAK

Kontagailuaren alokairua
Behar den zerbitzu bakarra da, eta kontagailurik jabetzan ez dagoenean agertzen da. Prezio arautua du.

Merkatu librean ohikoa da beste zerbitzu batzuk kontratatzea; benetan beharrezkoa den baloratzen du, eta behar ez bada, baja eskatzen du, kosturik gabe noiz egin daitekeen berrikusi ondoren.

HORNIDURAREN BESTELAKO INFORMAZIOA

CUPS: Hornidura-puntuaren kode bateratuak argi eta garbi identifikatzen du instalazioa.

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ALDARRIA, LEHEN LERRORA

✍️ Ainhoa Andonegi 🗣️ Asier Orbea / Ainara Argoitia

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen astelehena, eta horren harira, kaleak hartu zituen mugimendu feministak. Elgoibarren eta Mendaron ere lehen lerrora eraman zuten emakumeen kontrako indarkeria amaitzeko eskaera. Elkarretaratzeak eta manifestazioak egin zituzten, eta zapata gorriekin gogoratu zuten indarkeria matxistak aurten hildako emakume bakoitza. Gizonezkoei gai honetan ardurak hartzeko ere eskatu diete mugimendu feministatik, irtenbidea ez badira, arazoa direla gogoratuz.





*“Kruzelaegirekin
egin bezala,
konpositore historikoak
ahantzuratik
erreskatatzea da
nire lana”*



ALONSO HERNANDEZ PRADO

Kontrabaxu-jotzailea eta ikertzailea

✍️ Ainara Argoitia

Elgoibarko ilustreen zerrenda gizenagoa da maiatzaz geroztik. Alonso Hernandez Prado ikertzaile mexikarrari zor diogu hein handi batean hori. Izan ere, haren bitartez jakin dugu izan zela XVIII. mendean elgoibartar bat, fraide frantziskotarra bera, konpositore emankorra izan zena: Martin Frantzisko Krutzelaegi Askarraga (Elgoibar, 1742 - Mexiko, 1803). Joan zen eguenean hitzaldi-musikatua eman zuen Alonso Hernandez Pradok musika eskolako auditoriumean Pello Arrieta historialariaren eskutik, eta bezperan bildu ginen gu haiek biekin, Krutzelaegiren inguruan gehiago jakin nahian.

Kontrabaxu-jolea, irakaslea eta ikertzailea. Nondik datorkizu musikarako zaletasuna eta bereziki musika sakroa ikertzeko zaletasuna?

Maristetan ikasi nuen eta ume-umetatik lotura estua izan dut beti erlijio katolikoarekin. Musikarako zaletasuna ere izan dugu etxean. Osaba bat, Carlos Esteva Loyola, biolin-jolea eta orkestrako zuzendaria da eta harekin hasi nintzen ni 8 bat urte nituela biolina jotzen. Derrigorrezko hezkuntza bukatu nuenean musikari izan nahi nuela esan nuen etxean. Ordurako baxu elektrikoa ere jotzen nuen.

Mexikoko Kontserbatorio Nazionalean sartu nintzen gero eta 1979an, Joan Paulo II.a aita santuari Mexikon harrera egin zion taldean jo nuen. Talde harekin Ameriketa osoan ibili nintzen jotzen. Kontserbatorioan, kontrabaxua jotzen hasi nintzen eta kontzertu asko eman nituen Lucero abeslari mexikar ezagunarekin. Orduan egin nuen diru gehien [barrez]. Kontrabaxuak aukera asko ematen ditu, baina nik musika sinfonikorako bidea hartu nuen. Kontserbatorioko ikasketak bukatzera AEBetara joan nintzen gero, eta handik itzultzean buru-belarri hasi nintzen musika sinfonikoa egiten. Herrialde askotara eraman ninduen musikak, eta Queretaroko orkestran kontrabaxua jotzeko hartu ninduten azkenean. Han bizi naiz azkeneko hogeitau urtean. Artean doktoratu nintzen, eta musikari lana irakasle lanarekin uztartzen dut, Queretaroko Unibertsitatean. Unibertsitatean eskolak emateaz gain, ikerketan ere aritzen naiz.

Zein da zure ikerketa-lerroa?

Nolabait esatearren, konpositore historikoak ahanzturatik erreskatzen aritzen naiz. Biografiak eta konpositoreen obren katalogoak idazten ditut, baina beste bat da egiteko nagusia: konpositore historiko horien obrak sistema modernora transkribatzea, jotzea eta grabatzea, ez daitezen paperetan bakarrik gelditu. XIX. mendeko konpositoreak erreskatatzen jardun nintzen, eta aldatzearen, XVI. mendekoekin hasia erabaki nuenean deskubritu nuen Krutzelaegi fraide elgoibartarra.

Nola izan zenuen Krutzelaegiren berri?

Queretaroko Arantzazuko Amaren basilikako artxiboan izan zen. Lidia Guerberof artista eta ikertzaile latinoamerikarrak idatzitako katalogo batean ikusi nuen bazirela Martin Frantzisko Krutzelaegi izeneko baten hogeita hamarren bat obra, erlijiosoak denak. Hasi nintzen Googlen arakatzeko eta ikusi nuen ezer gutxi genekiela konpositore hartaz. Topatu nuen Elgoibarko zela sortzez eta hasi nintzen Elgoibarko ilustreen inguruko informazio bila Interneten. Futbol jokalaria, toretzaileak, politikariak, pilotariak eta abarrak azaldu zitzaizkidan, baina konpositore honen berririk ez. Orain, zorionez, Pello Arrieta maisuari esker, badago. *Fray Francisco Martín Cruzelaegi, un compositor franciscano en la Nueva España* liburua idatzi nuen gero 2020an, bere lanaren eta bere obrek duten estilo bereizgarriaren ingurukoa, eta Queretaroko gobernuaren laguntzari esker disko bat ere grabatu nuen haren bi obrarekin [Youtubean dago]. Krutzelaegi oso ona da orkestrarako eta abesbatzetzako piezak sortzen.

Urtebetean bigarrenkoz etorri zara Elgoibarrera. Zeren bila?

Urte sabatikoa dut hau, eta baliatu dut Krutzelaegi ikertzeko, baina Espainiatik. Doktoretza osteko egonaldia egiten ari naiz Jaenen, hango Unibertsitateko katedraduna eta musikologoa den Javier Marin Lopezekin. Musika eta musikari trukea Espainia Berria eta Mexikoren artean gaiari buruzko doktoretza egin zuen Mexikon, eta harengana etorri naiz ni Sevillako musikologiaren gauza tekniko batzuk ikastera. Oso bidaia interesgarria izan da hau, baina interesgarriena ziurrenik Krutzelaegi jaio zen herria ezagutu ahal izatea izan da. Hirugarren aldiz etorri naiz Atlantikoaz beste alde honetara aruten, baina Elgoibarrera, bigarrenkoz.

Zer dakigu Krutzelaegi musikariari buruz?

Fraidea zen Krutzelaegi, frantziskotarra, baina ez zen fraide soil bat, frantziskotarren ordenako prelatu nagusia izan zelako Mexikon, Elizarentzat gotzaina dena. Hori aukera paregabea izan zitzaion musika sakratuko ekoizpen handia konposatzeko eta estreinatzeko. Guadalupeko Basilikan; Celayako San Frantzisko tenpluan,

"Musika sakroa da Krutzelaegirena, Galante estilokoa, eta obra guztiak latinez daude idatzita"

Guanajuaton; Queretaroko Jose Guadalupe Velazquez kontserbatorioan; eta Puebla de los Angelesko eta Durango hiriko katedraletan zabaldu zuen bere musika. Eliz otoitzak musikatzeko helburuarekin idatzi zituen bere lanak eta garrantzi handikoak izan ziren bera hil ondorengo urteetan ere. Musikagintzan, autoritaterat hartu zuten Espainia Berria [Espainiako inperioa osatzen zuen lurralde entitate bat izan zen, XVI. mendetik XIX. mendera garatu zena, konkistaren ondoren sortu zena eta Ipar Amerikako lurraldeak hartu zituen].

2015ean kanonizatu zuten Junipero Serra fraide frantziskotarraren laguna izan zen Krutzelaegi, gurutzarekin eta ezpatarekin Mexikoren konkistan paper garrantzitsua jokatu zuenarena. Lankidetzan jardun zuten Mexiko iparraldean egindako zenbait misiotan, eta horren lekuko dira Kaliforniako Santa Barbara misioko artxiboetan gordetzen dituzten elkarri idatzitako gutunak. Baina Krutzelaegi, beste ezerekin gainera, konpositorea, organo jolea eta organo konpontzailea izan zen.

Zer dakigu Euskal Herriarekin izan zuen harremanaz?

Indietako Artxibategi Nagusian bildutako datuen arabera, 1770ean irten zen Euskal Herriatik Espainia Berrirantz, eta 1786an itzuli zen berriro hona, baina laster joan zen berriro Mexikora, eta han hil zen, 1803an. Mexikoko Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kide ere izan zen Krutzelaegi.

Pello Arrieta: Datu hori oso da garrantzitsua. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen. 1764an sortu zen, Azkoitiko Insausti jauregian zenbait urte lehenagotik egiten ziren solasaldien haritik. Peñafloredako kondeak, Xabier Maria Munibek, bultzatu zituen solasaldi haiek. [Ilustratuen talde hari esker, *Plan de una Sociedad económica o academia de agricultura, ciencias y artes útiles y comercio* delakoa egin zuten, eta, 1763an,



Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu, plan hori idatzi zutenek beren inguruko ekonomia sustatzeko zuten interesaren erakusgarri]. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea gorpuzteko lehenengo ekintza garrantzitsuenetako bat Bergarako Errege Mintegia sortzea izan zen [Gaur egun UNED dagoen eraikinean]. 1776an sortutako erakunde hori ikerketaren eta irakaskuntzaren aitzindari izan zen Euskal Herrian. 1778an, kimika-laborategi bat ireki zuten. Laborategi horretan, Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek metal berri bat isolatzea lortu zuten, 1783an: wolframioa. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen baitan mugimendu humanista ikaragarria sortu zen, ekonomia, kultura eta beste arlo asko sustatzen ibili zena. Atzerritik, eta bereziki latinoamerikatik, jende asko etorri zen hona ikastera. Egoitzak ere sortu zituzten Argentinan, Mexikon...

Alonso: Krutzelaegi 1776an egin zen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide eta Musikari Titulua ere kultura-erakunde horri esker lortu zuen. Mexiko Hirian San Fernando Kolegioko organista eta organo irakasle egin zen.

Bere jaioterrian baino ezagunagoa al da Mexikon?

Ez, han ere ez da ezaguna. Han Johann Sebastian Bachen pieza bat entzun eta berehala identifikatzen dugu zer den, baina Bach bera ere egon zen ahaztua, harik eta Felix Mendelssohn-pianista eta konpositoreak (1809-1847) XIX. mendean munduan ezagutzera eman zuen arte. Eta, ni Mendelssohn Bachentzat izan zena izango nintzateke Krutzelaegintzat, distantziak errespetatuta. Egiteko horretan bi lagun izan

ditut bereziki garrantzitsuak, Pello Arrietaz gain: Lehen aipatutako Javier Marin eta Jon Bagues errenteriarra. Eresbilgo artxiboan lan handia egin du Baguesek eta idatzi du Krutzelaegiri buruz ere. Baguesek gidatu ninduen Mexikon ikertzeko ere. Berak esan zidan Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak Mexiko Hirian duen Vizcaina jauregira joateko, besteak beste.

Krutzelaegiren *Oh Gloriosa Virgen* ereserkia topatu nuen Vizcaina jauregi horretan. Transkribatuta daukat obra eta orain baliabide modernoekin grabatzekoak gara. Era berean, urtebete honetan ikasi dudan guztiarekin bigarren liburu bat idazten ere ari naiz, lehenengoaren osagarri izan nahi duena. Krutzelaegi musikari eta konpositorearen inguruko interesa sortu nahi dut nik guzti honekin eta horregatik zait hain interesgarria Elgoibarren erreferentea den Pello Arrieta historialariaren modukoengan jakin-nahi hau sortu izana.

Zer berezitasun du Krutzelaegiren musikak?

Musika sakroa da harena, Galante estilokoa, eta obra guztiak latinez idatzita daude: Baditu lau-bost meza, magnifikoak, ereserkiak, Gabon kanturen bat... 25 bat obra dira guztira. Badute bereizgarri bat guztiek: koro bikoitzero daude idatzita. XVIII. mendeko estereofonia sortzeko baliabide bat da hori, ez berak sortua, Klasizismoan ere erabiltzen zutelako, baina bai berak maisuki erabili zuena. Biolinak, baxua (biolontxelo, kontrabaxua edo fagotaren antzekoa den bajon instrumentua), oboea, tronpeta eta kornoa inplikatzeko dituzte bere obra guztiek eta bereziki zailak dira biolinarekin jotzeko.

Euskaraldiaren Elgoibarko hamaikakoa aurkeztuko dute bihar eguerdian



2018an, Euskaraldia ariketa sozialaren lehen edizioan, Elgoibarren osatu zen 11koa.

Udaberrian egingo dute Euskaraldiaren laugarren edizioa, maiatzaren 15etik 25era bitartean. Azaro hasieran aurkeztu zuten Euskal Herriko enbaxadore izango den hamaikakoa, eta bihar, Elgoibarkoa aurkeztuko dute. Aita Agirre kulturgunean izango da ekitaldia, 13:00etan.

Ondoren, mokadutxoa egingo dute. Elgoibar 365 Taldeak antolatu du ekimena, Elgoibarko Izarrarekin eta Udalarekin. Euskaraldiaren helburua aurreko hiru edizioetako bera da: euskara jakin eta ulertzen dugunon artean euskaraz gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egitea.

Oraindik badaude Anariren kontzerturako sarrerak



Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, kontzertua emango du Anarik Elgoibarren, eta nahi duenak oraindik eskuragarri ditu sarrerak. Herriko Antzokiko webgunean daude salgai, herrikoantzokia.eus helbidean, eta agortzen ez badira, egunean bertan ere erosteko aukera egongo da, antzokian bertan. Anari Alberdi musikari azkoitiarrak eta bere taldeak 1996an kaleratu zuten lehen diskoa, *Anari* izenarekin, eta, harrez gero, iraupen luzeko beste sei disko kaleratu dituzte. *Giza zarata* izan da azkena, eta disko hori aurkeztuko du martitzenean Elgoibarren. Kontzertuaren atarian, euskarari lotutako poesia-irakurraldia egingo dute.

Euskal izen-abizenei buruzko hitzaldia, astelehenean



Euskararen Nazioarteko Egunean harira, euskarazko izen-abizenei buruzko hitzaldia emango du Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko arduradunak. Aita Agirreko areto nagusian izango da, 18:30etik aurrera. Besteak beste, euskal izenen berezitasunak, izan duten bilakaera eta noiz sortu ziren azalduko ditu. Egun berean hasiko dute Udalak eta Elgoibarko Izarrak euskal izen-abizenak euskarazko grafiaz idazteko kanpaina. Asko dira euskal izen-abizenak gaztelaniazko grafiaz dituztenak dokumentu ofizialetan, eta horiei aukera eman nahi diete euskaraz jartzeko. Erroldatuta dauden herriko erregistro zibilean edo bake epaitegian egin daitezke aldaketa. Informazio gehiagorako: Euskara Saila (943 744 366) edo Elgoibarko Izarra (943 741 626).

Kilometroak jaiaren aurkezpena egingo dute gaur, Maalan



Argitu da soken misterioa. Aste osoan zehar sokak agertu dira herriko txoko desberdinetan, eta galdetutako inork ez zekien zer ziren soka haiek. Elgoibar Ikastolaren ekimena izan da, herritarrak sokatik helduta gaur Maalan duten ekitaldira eramateko. 2025ean Elgoibar Ikastolak antolatuko du Kilometroak jai eta gaur aurkeztuko dituzte leloa, helburuak eta irudia. Ohiko hitzartzeez gain, bertsoak, zuzeneko musika eta beste sorpresaren bat egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. 18:30ean izango da aurkezpena.

'Euskelelea' antzerki musikatua, domekan, Herriko Antzokian



Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, *Euskelelea* antzerki musikatua antolatu dute domekarako Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiaka Sailak eta Inazio Bereziartua dantza eta musika eskolak, Udalaren babesarekin. Inazio Bereziartua eskolatik jakinarazi dute Korunahia abesbatzak, Gaztenahia abesbatzak, eta 14 urteko dantzariak ere parte hartuko dutela ikuskizunean, Euskal Barrokensemble taldearekin batera. Guztira, 55 abeslari eta sei dantzari arituko dira, beraz, oholtzan. Ikasleek ilusio handiz prestatu dute proiektua, eta dantzako koreografia asko ere ikasleek eurek sortu dituzte.

3 urtetik gorako haur eta familientzako ikuskizuna da. 16:30ean izango da, Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus atarian.

Zabalik dago Elgoibarko negulekuetan izena emateko epea

Neguko oporraldirako aisialdi eskaintza prest dute Atxutxiamaiakak, Udal Ludotekak eta Udal Gaztelekuak eta zabalik dago izena emateko epea.

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiakak HH2tik LH6rako aisialdi eskaintza prestatu du, Udalaren laguntzarekin, eta abenduaren 4ra arteko epea jarri dute izena emateko. HH2tik LH6ra arteko eskaintza prestatu dute. Txikienek txokoak izango dituzte, eta adinean aurrera joan ahala egun-pasa joateko irteerak eta jarduera bereziak ere izango dituzte aukeran. Izena emateko Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturgunean duen bulegora joan daiteke edo online egin bestela, elgoibarkoizarra.eus atarian.

Udal Ludotekako eta gaztelekuo negulekuetako izena emateko epea, berriz, abenduaren 8an amaituko da. Ekintza batzuetan plazak mugatuak izango direla aurreratu dute, eta plaza horiek gaindituz gero, zozketa egingo dutela. Plazak abenduaren 11n esleituko dituzte, eta emailaz jakinaraziko diete plaza eskuratu dutenei ordainketa nola egin behar duten. Informazio gehiagorako: 656 740 793 / ludotekaelgoibar@gmail.com.

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango ditu aisialdi eskaintza honetan parte hartu ahal izateko. Horiei buruzko informazioa Herritarren Arreta Zerbitzuan eskuratu daiteke (943 741 050).

2025eko egutegia aurkeztu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak 2025eko egutegia aurkeztu du eta eguaztenean banatu zituzten argazki eta marrazki lehiaketetako sariak. Aurtengo lehiaketaren gaia *Elgoibar, elkar zaintzen duen herria* izan da. Udalak 4.000 egutegi txiki kaleratu ditu eta herri osoko postontzietan banatu ditu; egutegi handiak (4.500 ale), aldiz, Aita Agirre kulturgunean eta HAZen daude eskuagarri.

Aurtengo argazki lehiaketan 11 herritarrek parte hartu dute, eta guztira, 38 argazki aurkeztu dituzte. Udaleko eta Ongarri elkarteko ordezkarietaz osatutako epaimahaiak 12 argazki aukeratu ditu egutegi handirako eta beste argazki bat txikirako. Hauek izan dira saridunak: Jabi Leon (3 argazki), Ainhoa Andonegi, Jose Ramon Cabrera (2 argazki), Asier Atorrasagasti, Miren Mujika, Vicente Guinea, Asier Orbea (2 argazki) eta Gurutze Ariznabarreta. Egutegi txikiko argazkia Jose Antonio Morenoren da. Argazki bakoitzeko 80 euroko erosketa bonoa jaso dute.

Marrazki lehiaketan, bestalde, Herri Eskolako eta Ikastolako LH 5 mailako ikasleek parte hartu dute, eta, guztira, 124 marrazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Herri Eskolako



sei eta Ikastolako beste hainbeste saritu dituzte: Anderson Salinas, Libe Jurado, Libe Lopez, Lara Gurrutxaga, Nikole Zabaleta, Ibai Muruamendaraz, Zeenat Fatima Masood, Ekaitz Leonardo, Mikel Azkoaga, Marcos Lorenzo, Yasmin Bachiri eta Ariane Garate. 30 euroko erosketa-bonoa, euskarazko mahai joko bat eta saritutako marrazki guztiekin prestatutako egutegi berezi bana eskuratu dituzte.

Datorren urteko gaia librea izango da: *Elgoibar*



Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko eskola-umeei 'Txirristaka' liburu bana doan eskuratzeko aukera eman die Mendaroko Udalak, familiako bat



Andoni Egaña idatzi eta Ainara Azpiazu Axpik ilustratu duen *Txirristaka* liburuaren ale bana jasoko dute Mendaroko LH6ra arteko eskola-umeei familiako, Mendaroko Udalaren ekimenez. Herritar talde baten eta In Leike kultur elkartearen proposamenari jarraituta argitaratu du Mendaroko Udalak liburu, Eusebio Mugertza Azpiazu *Txirristaka* bertsolariaren figura eta ibilerak ezagutzera emateko. Liburuja jaso nahi dutenek abenduaren 20ra arteko epea izango dute horretarako. Mendaroko liburutegian eskatu behar da liburuja.



LEIRE MARTIN ETXANIZ (Eibar, 19 urte)

LEINN, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduko 2. maila
Team Company: Nura

“LEINN graduan autoikaskuntza, autonomia, lideragoa eta komunikazioa lantzen ditugu”

► **Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzan) gradua ikastea?**

Aspaldi nuen LEINNen berri, eta beti iruditu zait interesgarria. Batxilergoan, hainbat aukera nituen buruan, baina ez nekien zein aukeratu. Azkenean, ate irekietara joatea erabaki nuen. Hasieratik sentitu nuen LEINN zela nire lekua, bere metodologia erakargarri eta praktikoagatik.

► **Nola ari da izaten LEINNen bizitako esperientzia?**

Esperientzia oso polita eta aberasgarria izaten ari da. LEINN, beste gradu batzuekin alderatuta, oso desberdina da. Lagunek maiz galdetzen didate zer egiten dugun, eta oso bitxia iruditzen zaie, ikasketa-prozesuan enpresa-ideiak garatzen ditugulako. Autoikaskuntza eta autonomia landu ditut, baita lidergotza eta komunikazioa ere. Benetako erronkei aurre egiteak lagundu dit gaitasunak eta trebetasunak garatzen.

► **Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitatetik?**

Coachekiko eta ikaskideekiko gertutasuna eta instalazioak.

► **Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan, nola egiten da hori?**

Unibertsitateak aholkulari talde bat eskaintzen digu arlo finantzario, legal eta digitalean. Horrek laguntza handia ematen digu, baina ekimena gurea da. Ez da prozesu erraza, baina asko ikasten dugu. Enpresa-mundu errealean murgildu izanak gure lanarekiko konpromisoa areagotu du.

► **Nola da taldean lan egitea?**

Talde-lana aberasgarria da. Besteen iritziak entzu-

teak eta ikuspuntuak partekatzeak ikasteko aukera ematen digu, eta horrek aberastu egiten du esperientzia. Taldeak trebetasun eta ikuspuntu ezberdinak ematen ditu, eta horrek hazten laguntzen digu. Taldean lan egiteak komunikazio eta lankidetzeta handia eskatzen du.

► **Zer proiektutan ari zarete lanean LEINNen barne?**

Orain bi proiektu nagusitan ari gara: ZIO, non oihal bakeroa birziklatuz poltsak sortzen ditugun, eta GRAFOS, hiriko artea ikusarazteko ekimen bat, non ekitaldiak eta arteko espazioak sortzen ditugun. Horiez gain, beste proiektu batzuk ere lantzen ari gara, hala nola: LATXI!, ardi latxaren artilea erabiliz produktuak sortzen; ELKARTUZ, haurrentzako literatura eta feminismo tailerrak eskaintzeko; eta GREENFLASH, LED argiak dituzten kartel pertsonalizatuak fabrikatzeko.

► **Zer nolako izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?**

Hilabete bat igaro genuen Berlinen, eta esperientzia ikaragarria izan zen. Kulturak, jendeak eta egunerokoak gure ikuspegia zabaltzen lagundu zizun. Berlinen hainbat enpresa bisitatu genituen eta gure proiektuak aurrera eramaten saiatu ginen, bertako enpresa-ekosistema gertu-gertutik ezagutuz. Esperientzia aberasgarria izan zen eta ikuspegi berriak ekarri dizkigu.

► **Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?**

Etorkizunean proiektu berritzaile batean lan egitea gustatuko litzaidake, eta finantzen arloko master bat egitea pentsatzen ari naiz, proiektuak kudeatzeko eta gidatzeko baliagarri izango zaidalako.

Realaren lehen taldearekin debuta egin du Luken Beitiak

Realaren lehen taldearekin debuta egin zuen azaroaren 21ean Luken Beitia Agirregomezkorta (Elgoibar, 2004) Sanseko jokalaria, Alacanten, Espainiako Errege Kopako partidari. Valentziako uholdeengatik atzeratutako Jove Español San Vicenteren aurkako partida jokatu zuen Realak. Partida dataz aldatzeko eskatua ere bazuen talde txuri-urdinak, Realak Athleticen kontrako euskal derbia jokatzeko zuelako azaroaren 24an, baina ez zioten onartu eta harrobiko jokalarietatik tira egin behar izan zuen Imanol Alguacil entrenatzaileak deialdia osatzeko, selekzioekin jokatu duten futbolarietara atsedena emana zitelako. Legeak arautzen du gutxienez lehen mailako 11 jokalaria egon behar direla hamaikakoan, eta horietatik zituen justu Imanol Alguacilek prest partidarako: 11. Deialdia Sanseko bederatzita jokalaria gazterekin osatu zuen: Aitor Fraga atezaina, Iñaki Ruperez, Mikel Goti, Mikel Rodriguez, Jon Balda, Arkaitz



Mariezkurrena, Alex Marchal, Ekain Orobengoa eta Luken Beitia elgoibartarra. Beitia hasierako hamaikakoan sartu zuen, gainera, Alguacilek eta ondo bete zuen bere lana jokalaria gazteak. Realak nagusitasunez irabazi zuen neurketa, 0-5eko emaitzarekin. Beitia Lehen Mailako futbol talde baten jokatzeko duen C.D. Elgoibar klubeko 31. jokalaria da. Tiburcio Beristain izan zen bide urratzailea, Alaves taldeak fitxatu baitzuen 1930. urtean.

Paula Calvo jaso du Gipuzkoako Igeriketa Galako sarietako bat

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak joan zen denboraldiko kirolari hoberenei aitortza egin zien Gipuzkoako Igeriketa Galan. Donostiako Kirol Etxean egin zuten, azaroaren 22an. Besteak beste, errekorrak ezarri dituzten igerilariak saritu zituzten galan, eta Paula Calvo izan zen sarituetako bat. Aurtengo denboraldia ere sasoi betean hasi du igerilari elgoibartarrak, bederatzigarren postua eskuratu baitzuen Espainiako Neguko Igeriketa Txapelketan, maila absolutuan. Madrilgo M86 Zentroan jokatu zuten txapelketa azaroaren 14tik 17ra bitartean, eta 138 igeriketa taldetako 718 igerilari lehiatu ziren. Calvo hiru probatan lehiatu zen eta bizkar estiloko 200 metrokoan lortu zuen emaitzarik onena. Hamabigarren postua lortu zuen 2 minutu eta 16 segundoko denbora eginda eta B finalerako sailkatu zen. Final horretan ia hiru



segundoan ondu zuen aurrez eginiko denbora, eta 2:13.66ko denborarekin sailkapen nagusiko 9. postua eskuratu zuen.

Arkaitz Egaña Espainiako Ehiza Xehe Txapelketako finalean izango da

Llanos del Caudillo (Ciudad Real, Espainia) herrian jokatu zituzten joan zen asteburuan 55. Espainiako Ehiza Xehe Txapelketako bi finalerdiak, iparraldekoena eta hegoaldekoena. Ruben Fernandez ehiztari errioxarra izan zen onena Espainia iparraldeko ehiztarien artean eta Alberto Rivera andaluziarra hegoaldekoen artean. Arkaitz Egaña elgoibartarra zortzigarren postuan sailkatu zen, lau

untxi ehizatuta, eta finalerako sailkatzea lortu zuen. Finalerdi bakoitzetik hamabi ehiztari onenak sailkatu dira finala jokatzeko. Horiei iazko irabazlea, Asier Arrizabalaga hernaniarra, eta Kanarietako, Baleareetako eta Ceutako ordezkari bana batuko zaizkie finalean. Guztira 28 lehiakide izango dira. Villadiego (Burgos, Espainia) herrian izango da finala, abenduaren 6an eta 7an. Egaña birritan izan da Espainiako txapelkun, 2012an eta 2015ean eta txapelkunorde izan zen 2014koan.



Logotipo berria,

Mugertza krosa modernizatzeko lehen pausoa



Irudia berritu du Mugertza krosak, eta antolatzaileen lantaldea ere gaztetu dute. Aurkeztu duten logotipo berriak Mintxetako zelaietako berdea, lokatzaren kolorea eta krosa jokatzeko den pista ospetsuko tartana irudikatzen dituela azaldu dute, eta Elgoibarri erreferentzia egiten dion "e" izkia darama erdian. Kide berriak sartu dira krosa antolatzeaz arduratzen den Mintxeta taldeko lantaldean, eta taldea gaztetuta, krosa garai berrietara egokitzeko, "modernizatzeko", asmoa dutela aurreratu dute. Logotipoa berritzearena izan da asmo horretan eman duten lehen pausoa.

Eskubaloi Eskolaren neguko kanpainan parte hartzeko izen-ematea, zabalik

Sanlok *Murgildu zaitetz eskubaloian* kanpainaren ekitaldi bat prestatu du Neguko oporraldirako. Entrenamendu saioak egingo dituzte abenduaren 26an eta 30ean eta urtarrilaren 2an. Tartean Bilboko PINera irteera egingo dute, abenduaren 27an, eta azkenik txapelketa bat jokatu dute urtarrilaren 3an. Ekintza guztiak benjamin (2015 eta 2016an jaiotakoak) eta alebin (2013 eta 2014) mailako

neska-mutilei zuzenduta daude. Elgoibar, Deba, Mendaro eta inguruko herrietako neska-mutilek eman dezakete izena. Sanloko jokalariek 40 euro, eta gainerakoek 50 euro sartu beharko dituzte honako kontu zenbakian: ES75 3035 0007 29 0070065927 (Laboral Kutxa). Abenduaren 10a izango da izena emateko azken eguna. Informazio osoagoa sanolatxo@gmail.com helbidera idatzita edo 688 735 446 telefono zenbakira deituta.

Alex Txikonek Himalaiara prestatu duen espedizioan da Ainhoa Lendinez

Alex Txikon euskal alpinista ezaguna Nepalera ailegatu berri da, Himalaiarako espedizio bati hasiera emateko: Annapurna (8.091 m) mendia igo nahi du neguan. #OdysseyAnnapurna25 moduan izendatu dute espedizioa, eta Annapurnara joan aurretik, Khumbu bailaran barneratu eta Ama Dablam mendi ikonikoa (6.812 m) igotzen saiatuko dira, eta, ondoren, Pumori mendira joango dira. Altuerara eta Himalaiako mendietara egokitzeko lehen aste horietan hamar lagunek taldea izango du lagun Txikonek eta horien artean izango da Ainhoa Lendinez. Mendian ibiltzeaz gainera, espediziokideak elkarrizketatu eta kazetari lanak egingo ditu mendizale elgoibartarrak. Hilabeterako joan da: "Lehen asteetako trekkinean hartuko dut parte, Ama Dablam igotzeko saiakeran eta Everesteko behe kanpalekuraino eramango gaituenean, ...eta gero gerokoak", zehaztu du. *barren.eus*-eko komunitatean izango duzue Ainhoa Lendinezek Himalaiatik egingo dituen kronikak jarraitzeko aukera. Girora moldatzeko aldiaren ostean ekingo dio Txikonek Annapurnako



tontorreraino igotzeko ahaleginari, Matia Conte italiarra, Sajid Sadpara pakistaniarra eta Waldemar Kowalewski poloniarra soka-lagun dituela. 2016ko neguan Nanga Parbat (8.126 m) eta 2023an Manaslu (8.163 m) gailurrak egitea lortu ondoren, bigarren urtez jarraian saiatuko da Annapurnako gailurra negu betean zapaltzen. Jerzy Kukuczka Yurek eta Artur Hajzer, Himalaian inoiz izan den sokaldirik indartsuenetakoa, 1987ko otsailaren 3an heldu ziren Annapurna gailurrera (8.091 m), ipar aurpegitik. Neguko lehen igoera izan zen, eta geroztik ez da beste inor igo neguan.

Mariren Kobak Trail berezian hartu du parte Denis Saizek

Mendi lasterketa berezia da aurten bigarrenkoz antolatu duten Mariren Kobak Traila. Berezia orientazioak eta planifikazioak garrantzi handia dutelako, azken momentura arte ez dutelako ibilbidea zein den argitzen. Gainera, abentura euskal mitologiarekin eta mistizismoarekin lotzen ditu lasterketak eta hainbat haitzulotatik igarotzen dira ibilbidean. Eta badu azken berezitasun bat ere: hogei lagunek bakarrik parte har dezaketela. Denis Saiz izan zen parte hartzaileetako bat.

Angel Garcia izan zen Larraizko aparkalekua eta Zegamako plaza denbora epearen barruan lotzea lortu zuen parte-hartzaile bakarra. Marizuloko (Txindoki, Aralar), Lezaundiko (Urbasa) eta Altzaniako (La Leze) haitzuloetatik



igarotzeko behar izan zuten partaideek 90,7 km eta 3.980 metroko desnibel positiboa zuen ibilbidean.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. **647 554 386**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Ospitalean ere bai. Titulu soziosanitarioa daukat eta nire herrialdean erizaina naiz. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauetz, asteburuetan. **641 692 366**

Garbiketa lanetarako prest nago. Lanean jarduteko beharrezkoak diren formakuntzak eginak ditut. Orduka egingo nuke lan. **632 721 342**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobekak. Berehalda hasteko prest. **632 711 473**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta titulu soziosanitarioa ditut. **614 114 360**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizaintzako titulua eta titulu soziosanitarioa ditut. Esperientzia handia. **643 505 662**

Zerbitzari lanetan jarduteko prest nago. **632 065 398**
Adinekoak zaintzeko prest nago orduka. Esperientzia handia. **631 425 686**

Adinekoak zaintzeko prest dagoen pertsona arduratsua naiz. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan edo orduka lan egiteko prest nago. **632 708 954**

LOKALAK

Taberna alokagai Mendaron, Mendarozabal auzoan. Informazio gehiago pribatutik. **695 781 673**



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoaldea Enpresa Administrazioak
Luzarbelo Komunitatea



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Gure atarian, lehen pisuko etxebizitza batean, jabeak bere etxeko leihoan barroteak jartzea eskatu du. Jar ditzakeen jakin nahi nuke.

Hasiara batean, fatxada eraikinaren elementu komuna dela hartu behar dugu kontuan, eta, beraz, haren estetikari eragiten dion edozein aldaketa debekatuta egongo da, salbu eta jabeakideek aho batez erabakitzen badute eta, hala badagokio, erabaki hori ez bada udalerriko araudiaren aurkakoa. Beheko solairuko leiho batean barroteak jartzea eskatuz gero, komunitateak instalazio hori debekatzeko duen eskubidea ez dator bat jabe partikularrak bere etxebizitzaz gutxieneko segurtasun-baldintzetan gozatzeko duen eskubidearekin. Dena dela, jabeak baimena eskatu beharko dio beti Jabeen Batzordeari. Hark oniritzia ematen badu, eskatutako burdin sareak instalatu ahal izango ditu. Aldiz, komunitatearen baimenik lortzen ez bada, eta jabeak, instalazio horretan interesa izaten jarraitzen badu, erabakiaren aurka egin beharko du epaitegi eskudunean, eskubide-abusua delako, eta, gainera, etxebizitza segurtasun-baldintzetan jartzearen aurka doalako.

Ondorioa: Horrelako egoeretan, askotariko kasuak planteatzen dira. auzitegiek elementu horiek jartzea onartzen dute, betiere fatxadaren estetikari modu larrian eragiten ez badiate eta etxebizitzaren segurtasunerako beharrezkoak badira, edo beste jabeatzuei eragiten ez badiate. Esate baterako, barrote horiek instalatuta goiko solairuaren segurtasuna arriskuan jartzea, hura erabiliz eskalatu ahal izango delako

GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Aimar**, abenduaren 4an 11 urte beteko dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familia guztiaren, eta bereziki Liberen partez.



Zorionak, **Haizea!** 8 urte handi! Ondo-ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen partez.



Aurten 7 eta 9 urte! Zorionak, **Intza** eta **Lizar!** Ondo-ondo pasa eguna, maite zaituztegun guztiakin.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.




Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!




Erosi zure oparia Aramburun eta **250€ko 2 baleren zozketan parte hartu!**



 @aramburubitxidenda

 943 742 535



29 BARIKUA

18:00 Kafe tertulia: 7. artea. Loredi Salegirekin, Lilan.

18:30 Aurkezpena: Kilometroak 2025. Elgoibar Ikastolak aurkeztuko du, Maalako parkean.

30 ZAPATUA

AZKEN ZAPATUKO FERIA

9:00 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan. Artalde taldeko artisauek ere jarriko dituzte postuak.

11:00 Morkaikok txosna zabalduko du.

12:00 Umeentzako tailerrak.

Eguerditik aurrera, ganadu feria.

10:00 Irteera: Donostiako aquariumera. Altzolako Auzo Elkartek antolatuta. Izena emateko: 635 753 447.

12:00 Odol emaleei omenaldia. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

ERREMINTA MAKINAREN MUSEOKO

FAMILIA EGUNA

16:00 Harrera eta bisita gidatua familientzat.

17:00 Maroto ilustratzailearen demoa.

17:45 Niala magoaren ikuskizuna.

1 DOMEKA

11:00 Sallobente-Ermuaran auzoko jolasgunea aurkezteko jaia.

18:00 Gabriel Arestiri buruzko 'ArestiAN, egun...!' ikuskizuna, Mendaroko San Agustin kulturgunean, debalde.

2 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak. Txanda hartzeko: 688 640 983 edo elgoibarzaintza@gmail.com

EUSKARAREN EGUNA

30 ZAPATUA

11:30 Turra historikoa. Sarai Sagastak gidatuta, bisita turistikoa egingo dute, Kalegoen plazan hasita.

13:00 Euskaraldiko hamaikakoaren aurkezpena, Aita Agirre kulturgunean.

Segidan, luntxa.

16:00 Lehiaketa: Elgoibar Koloretan. 16-30 bitarteko gazteentzat, Aita Agirre kulturgunean.

20:30 Erromeria, Maalako parkean, Urrats taldearekin.

1 DOMEKA

16:30 Antzerki musikatua: 'Euskelelea'. Herriko Antzokian.

2 ASTELEHENA

18:30 Hitzaldia: 'Euskal deituren ezaugarriak, historia eta sorrera'. Mikel Gorrotxategik emango du. Aita Agirreko areto nagusian.

3 MARTITZENA

19:00 Kontzertua: Anari. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: herrikoantzokia.eus

4 EGUAZTENA

19:00 Dokumentala: 'Aire!'. Herriko Antzokian.



Josefina Urbietta Oyarzabal

2024ko azaroaren 21ean hil zen, 78 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.**



Zinea (Herriko Antzokian)**'Los destellos'**

29 barikua: 19:00
30 zapatua: 19:00 / 22:15
1 domeka: 19:00
2 astelehena: 21:00



'No other land'
(Ongarri zinekluba)
4 eguaztena: 21:00

**2024ko
botika
ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK:
Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

AZAROA

29 BARIKUA Yudego
30 ZAPATUA ■ Oruesagasti

ABENDUA

1 DOMEKA ■ Oruesagasti
2 ASTELEHENA Barrenetxea
3 MARTITZENA ■ Soto
4 EGUAZTENA Garitaonandia
5 EGUENA Barrenetxea
6 BARIKUA Garitaonandia

2024 urte guztian, gauez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

| | | |
|---|--|--|
| ■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142 | ■ Soto: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638 | ■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384 |
|---|--|--|

**Karmen Olariaga Korta**

2024ko azaroaren 22an hil zen, 99 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Emazte, ama eta amama paregabea,
zugandik ikasi dugu, eta zugatik gara garena.**

**Gugan geratuko da,
eman diguzun dena.
Maite zaitugu, etxeokak.**





Ainara Jaione
Puwainchir
Iparragirre
4 urte, Elgoibar



"Ladybug"



Montserrat
del Valle
Astudillo
Torres
4 urte, Altzola



"Marine - Ladybug"

BANDERAK

Ba al dakizu bandera hauek zein herrialdetakoak diren?



A _ _ _ _ _

J _ _ _ _ _

A _ _ _ _ _

F _ _ _ _ _


ITZALAK

Asmatuko al duzu Pantera Arrosaren itzala zein den?



LABERINTOA

Lagundu Kiribili etxera iristen...



Erantzunak: _____



- FRANTZIA
- AUSTRALIA
- JAPONIA
- ARGENTINA
- Banderak:



BIRZIKLATU

latak, brikak eta plastikozko
ontziak edukiontzi horian eta
egin bat ekonomia zirkularrekin



DebaBarrena
Denona da, izan garbi



ecoembes
Lankidetzaren indarra